

2017/00000471 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, 2017/03/24

Hernaniko Udalaren 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- Hernaniko Udalaren 2016eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak:	12.604.185,72
2.- Kobratu gabeko saldoak:	2.479.437,22
3.- Ordaindu gabeko saldoak:	3.536.103,71
4.- Aplikatu gabeko partidak:	11.040,26
5.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3+4):	11.558.559,49
6.- Saldo kobragaitzak:	1.074.261,96
7.- Diruzaintzako gerakin likidua (5-6):	10.484.297,53
8.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	699.605,38
9.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (7-8):	9.784.692,15
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	3.360.712,08
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-234.605,80
12.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	1.749.374,16
13.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-216.985,20
14.- Aurrekontu emaitza (10+11+12+13):	4.658.495,24

Informazio osagarria:

15.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	7.035.773,06
16.- Kontingentziak (kupoaren desadostasuna):	658.248,00
17.- Beste doiketak (finantzaketa lotua):	116.180,67
18.- Kredituak txertatu ondoren Gerakin erabilgarria (7-15-16-17):	2.674.095,80

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Luis Intxauspe Arozamena alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea

